

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Monora buelta.
Black Lagun.
Autoekoizpena.
Iraupena: 26'46".

Kuartel-etxeko sindromearen kontrako antidotoa

ZER ESANGO ZENUKE talde batek bere irudian Xabier Arzalluz ile afroarekin jarri duela esango banizu? Agian zerbait argituko nuke taldea Iruñekoa dela eta Mermaid, Basque Country Pharaons, Royal Canal eta beste hainbat talde sortutako Iñigo Firehead atzean dagoela esango banizu. Ez hori bakarrik, aspaldiko konplize Leroy Starlight bateria jotzailea ere badago, beste musikari gazteago batekin. Umorea eta iruindarrei

zuzendutako kritika zorrotza banatu dute lan honetan. Euskaraz abestuta, folka, 1970eko hamarkadako rocka, post-hardcorea, noisea eta enparauak batu dituzte koktelera batean, oso modu irudimentsu eta pertsonalean. Eta euskal sena laburbiltzen duen surf instrumentala ere idatzi dute. Dagoeneko psikodelikoagoa eta zoroagoa izango den bigarren lana prestatzen ari dira, beste proiektuek uzten badiete.

Leroy Starlight - Black Lagun

«Taldea honekin oihi egiteko gogoia genuen; asmo gabe sortu eta harrituta gaude harrerarekin»

“Bizitzako kurbei” beldurra diezue? Ez zarete zuek ba bide arruntetik joatekoak...

Ohitura oneko jendea gara eta langabeziari diogu beldurra. Jada ez ditugu kurbak hartzen, zuzen goaz eta geldiuene asko eginda. Disko honetan kantu klasikoak egin ditugu.

“Jende gehiegi talentu gabe amnesia hilda”. Sormena garatzeko ezinbestekoa da esperientzia eta bizipenak izatea?

Ez. Iruñetik buelta bat ematea nahikoa da inpiratzeko. Belaunaldi galduak nazka ematen dute. Iruñea hilzorian dago, akabatuta. Askotan badi-rudi iruindarrak guardia zibilen semeak direla, kuartel-etxeko sindromea dutela.

Zer dela-eta abesten duzue euskaraz orain?

Iñigo euskara ikasten dabil eta oso motibatuta dago, nahiz eta hitzak Xabik egiten dituen. Tal-

dea berehala sortu genuen, ia oharkabean, eta hala egin dugu. Harrigarria da uneoro talde berriak sortzea...

Tira, Mermaid sortu genuenetik denbora luzea pasa da. Iñigok talde askotan jotzeko gaitasun handia dauka. Gainera, aspalditik ezagutzen dugu elkar eta horrek errazten du guztia. Giro bereko hamar bat musikarik osatzen ditugu talde gehienak. Zer beste gauza

egin dezakegu? Zinemara joan? Zer ekarri digu “lagun beltzak”?

Mirra, droga, Espainiaren kontzeptua, Iruñeko armarrarian dagoen harri haserretua... Talde honekin oihi egiteko gogoia genuen; taldea inolako asmo gabe sortu genuen eta harrituta gaude harrera onarekin. **Black Lagun musika talde politikoa da?**

Ez, talde soziala da. Reincidentes bezalakoak gara, baina ezker-tiarrak

Zergatik egin behar dugu *Monora buelta*? Hobe da atzera egitea?

Bai, datorrena ikusita, hobe atzera begiratzea. Ez dago etorkizunik.

Xabier Arzalluz ikonoa da eta kantu bat idatzi diezue...

Bai. Politikoki ez dugu berarekin bat egiten, baina pertsonaia sinpatikoa da; Espainian nola ikusten duten oso bitxia da gure ustetan, maltzurrena balitz bezala. ■

